

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

151n. Zenbakia Jorraitia
Aprilla
1991



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



AITA ARRUPE S.J.

- BIOTZ-ZABALA
- BURU-ARGIA
- EGUNERATUA
- ESAN-EGILLEA
- ITXAROPENTSUA
- ELEIZ-GIZONA
- MUNDUAREN MAITALEA
- JOSU-LAGUNEN AITA

EUSKERA ETA AUTESKUNDEAK

Donosti ko **Arbasoen Izkuntza Zaleak** deritxon Alkarteak, Eusko Legebiltzar'erako auteskundeak zirala-ta agerpen batzuk auskereari buruz edi-erazi ebazan.

Erakunde onen araudien arabera, bere asmo edo zeregiña euskera errikioia piztea dan-ezkero, ba-dirudi zeozer esan bearean aurkitzen zala. Beraz ikusi daigun zelako jokaera artu eban, bideak erreztu ta bere elburua obeto lortzeko.

Autaldi egunetan alderdi guztiak autarki-gose dagozan-ezkero, gauza asko eskeintzen dabezala-ta abadaguna baliatu bear dogula talde guztiak, baiña batez be abertzale diranak, zirikatzeke ta eskatu euren autarki-zabalkundean onelako gaiak gogoan euki dagiezala:

a) Euskeraz idatzitako autarki-zabalkunde guztia, naiz bizkaieraz naiz gipuzkoeraz (erri-aldeari dagokionez) izan daitela. Onezaz gaiñera, euskereari kalte negargarria egiten dautsoela -ta, erderakadak ez erebiltzeko.

b) Euskalkien alde ekin dagiela, merezitako laguntza emonaz, eta elburu au lortzeko daukezan asmoen laburpen bat auteskunde-aldian agertuko dabe.

c) Elburu oneik lortu al-izateko, alderdiak egoki diran notiñak trebetu bearko dabez, erakunde ta beste erri-bulegoetan, euskalkiak erabilli ta aldeztuteko.

d) Euren autarki-egitامuan gogoan eukiko dabe euskera errikioia erabiltzen daben alderdiak, euskaldunen artean arrera ona izango dabela.

e) Auteskunde oneik garai ona dalakoan gagoz euskera errikoiaren alde borrokatzeke, euskalkiai dagokien gorapena emonaz. Olan euskerea sendotuko litzake ta ez makaldu edo, ainbeste erderakadakaz, il zorian jarri.

f) Esan doguna egin bearrekoa da euskerea indartu ta bizirik iraun dagian.

Euskalkiak beti izan dira ta oneik ostentzen ba'dira, euskera jatorrak be bide berbera artuko dau alde egin ostendu arte.

Bide onetatik lana egiteko zirikatzen zaituegu ta olan euskerea eta Euzkadi'k eskertuko zaituee.

Orra or **Arbasoen Izkuntza Zale**'ko kideak alderdi abertzaleai emondako aolkuak Eusko Legebiltzar'erako autaldian erabiltzeko. Benetan lore-sorta zoragarria: ezin obea.

Ortan euskaltzale jator guztiok batera gatoz, ta antolatzen doguzan alkargo danak elburu orren billa zuzentzen dira: euskera jatorrari ta bere euskalkiai, al dan beste uts edo garbi bai iztegian bai joskeran eustea. Gure izkuntza ain berezi ta jakingarria dana, dagokion begirunez erabilli bearrean gagoz.

Onelako oivak gure biltoki txiki ta indargabetatik, basamortuan eginda bezela, iñork entzun barik galtzen dira. Aitatu dogun **Arbasoen Izkuntza Zaleak**, gure **Euskera-zaleak** eta beste antzeko alkarteak onguraz eta gogo-beroz euskera jatorren alde ari dira; baiña errian premiatiu edo beartu leikien oi ta aolkuak, beste bide eragille ta indartsuagoak bear dabez: alderdi abertzaleak eta oneik osatuten dabezan jaurlarritza-batzorde eta erakundeak bide bide egokienak dira, izkel-akademi batera.

Baiña bide oneikin jabetzea garrantzizkoa izanda, ala ta guztiz be ez da naikoa euskerearen auzia zuzentzeko. Ain eragille ta egoki lekuetan jartzen gizaki arduradunak, eginkor eta itzal aundikoak izan bear dira; onenaz gaiñera, batezbe, euskaltzale jakitun eta **iritzi jator batekoak**.

Iritzi jator batekoak esan dogun ezker, **or dago untzea!** esan bearrean gagoz. Euskaldunok gitxi gara ta gai ontan be, beste askotan bezela, iritzi ezbardinkoak. Talmagarria benetan.

Euskereari buruz iritzi ezbardiñak bateratzea funtsezkoa da. Abertzaletasuna, berez, ez da naikoa ezta bere auteskundeak irabaztea. Len esan dogun lez, oneik bide on batzuk izan leitekez baiña gaiñera, euskereari galbidetik gordetzeko, guztiz bearrezkoa dana euskaltzaletasuna da: gure izkuntza benetan maitatu. Euskerea gure ezaugarri berezi ta garrantzizkoena dala gogoan artu bear dogu.

Aurretik ba-genkian **Arbasoen Izkuntza Zale**'ko kideak euren gurariak ez leukiezala lortuko. Len esan dogun lez, emon ebezan aolkuak basamortuan egindako oivak izan ziran. Austeskundetan erabillitako euskerea, "H" eta guzti, gaur oizkoa dana izan da: euskekiai iñolako begirune barik eta erderakadak parra-parra bai itzetan eta bai joskeran, aspaldian oituta gagozan legez. Naizta euskal itzak oso ezagunak izan, erreztasunaz ta zabarki erderara jotan da. Ba-dirudi, euskera garbia erabilli ezker, ulertuko ete-dautesien edo bildurrez dagozala. Autaldi egunetan onelako itzak irakurri al izan doguz: Gobernu, kandidatura, botoa, sozial, kultura eta abar. Au be bai: Eskola Nazionala Publikoa eta Euskalduna.

Gure izkuntzaren gaia ez da ondo zuzentzen; jokabide okerretik dabil. Ainbeste urtetan abertzaletasunajaun ta jabe gure artean, eta ikusten dana zera da: **Batua** dala ta ezala, beti euskaldun izan diran erri txikietan erdereak, euskerearen kaltez aurrerakada aundia egiten dauala; uriburu ta erri aundietan barriz, ikastola ta beste ikastetxetan irakasten dan euskerea ez dala nabaritzen.

Zori-txarreko ta negargarria benetan euskerearen egoera; baiña amaika bider entzun doguzan negar-marrazkak ez goaz barriz esatera. Azaldu leikezan zio ta argi bideak, ZER aldizkari onetan 131 zanbakian (Bagilla 1989), gure Zubiri'tar Iñaki'k **ITXARTU ZAITEZE...!** egindako idaz-lanean, argi ta garbi, irakurri zeinkiez. Baita oraintsu (Garagarrilla 1990) 143 zenbakian ber-berak idatzi dauan **NON DAGOZ...?** beste idaz-lanean, lengoari lotuta dagona.

EUSKALDUN AUNDIAK

Oraintsu joan jaku mundu onetatik euskaldun aundia izan dogun Aita Arrupe Josulaguna.

Euskaldun aundia esan dogu eta izan be ain aundia dalako, gauza ta persona aundiak sartzen daben bildur antzeko bat sartzen jaku bera gogoratzen dogunean. Zergaitik ori? Aldakuntza aundi bat aldarrikatatu ebalako eleizearentzat eta aldakuntza ori gaurko arduradun batzuk onartu ezin dabelako. Bearrezko aldakuntzea dala uste dogu, aldakuntza oso egokia dala, eta aurrera urtengo ez et dauan. Or larrialdi aundi bat sortzen da gaurko gizartearentzat eta Eleizearentzat. Zertan amaituko ete da dana?

Bizitzeak berak egin eban aundi gure Arrupe. Bere osagille-ikasketak, munduko fededun askok dautsoen itzalak, josulagunik geienak dautsoen maitasunak.

Zenbaki onek berezitasun bat dauka Aita Arrupe'ri begira. Gizon eta kristiñau euskaldun aundi oneri omenaldi au eskintzea gauza egokia dala uste dogu.

Zenbakiaren azalean izen lagun labur eta argi batzuk ezarri dautsaguz:

Biotz-zabala: Arerioak eurak be maitatzen ebazana.

Buru-argia, bere ikaskideak, eta onein artean Sebero Otxoa Nobel sariak baiezten dabena.

Eguneratua, bear ba da osagille-lanbidea ona zan orretarako, eta gero txiroakandik urrean bizi izan bearrak be asko laguntzen dau, eta batez be Kiziindar edo atomozko lergaiak izan ebazan ondorenak urretik ikusteak... Bai, bizitzeak berak egin eban gizon aundi.

Esangiña izan dala diñogu, eta orretarako Loiola'ko Ignazio'k esagintzari buruz izan ebazan eri-

txiak jakin ezkerro, errez ikusten dogu Arrupe Aita, ain argia izanik, esangin apal-apala izan zala. Eta ez da izaten gauza erreza, gauzak argi ikusi eta norberaren eritxia alboratu bearra. Urteen joanak argituko dau noraiñokoa izan zan apaltasun au eta Galileo'ren kasua labur izten dauala edo Teillard de Jardin Gogosatzen dauana.

Itxaropentsua izan dala diñogu, eta izan be, bere bideak etorkizunerako egokiak izango dirala uste izan eban, naizta gure aldi au orretarako gertatuta egon ez, ez eban itxaropena galdu.

Eleiz-gizona benetan, otoitzean, Barri-Ona zabaltzean, Barri Ona gaurko arazoetarako eguneratzean, txiroai laguntzean...

Mundu-maitalea be bai, berak gaurko munduaren sukarra ondo ezagutzen eban eta mundu makal onen ondoan apal egin eban bere lana.

Eta, danaren gaiñetik, Josulaguna, Lagundi onek munduan dauan zeregiña ondo ulertu eta bideratu ebana.

* * *

Gero Iñaki Goikoetxea, aldizkari onetan lankide dagun josulagunak, zeatz eta meatz agertzen dautsuz bere bizitzako jakingarriak eta berari buruz diran eritxiak.

Eta, askenez, guztiok ezagutzen dogun Scheifler josulagunak arlo onetan eritxi batzuk agertzen dauz. Berak erderaz idatzi, baiña Josu Arregi gure lankideak euskeratu dauz.

Mugia'n kale bat dau bere izenean Arrupe Aitak bera jatorriz erri onetako zalako, eta beste erri batzutan be, bere gomutea aztu ez daiten, olako zerbait bear leukela uste dogu.

Aita Arrupe benetan euskaldun aundia.

AITA

PEDRO ARRUPE



1907, azaroak, zemendiak 7. Pedro Arrupe Gondra Bilbo'n jaio zan. Aita Martzelino eta ama Dolores... Aita arkitekto-etxegille, eta "La Gaceta del Norte" egunkariaren sortzaileen artekoa zan.

1916. Eskolapioetan ikasketak asten ditu, eta Bilbo'ko jesulagunen Kostka Billeran izena emoten dau.

1922. Balladolid'era osagille ikastera doa, eta gero Madril'era aldatzen da, San Karlos ikastetxe nagusian jarraitzeko.

Sebero Otxoa, Nobel sariak, Arruperen ikas-lagun izan zanak, diño: "Pedro Arrupe ikasle guztien artean beti lenengo izaten zan".

1927. Ogei urte ebazala, Loiolan Jesusen Lagundian sartzen da, eta Oña'n (Burgos) bere ikasketak jarraitzen ditu.

1932. Jesusen Lagundia Espainia'tik aldendua izan zanean, Arrupe Belgika'ko Marneffe'ra teologia ikastera joan bearrean aurkitzen da.

1936. Valkenburg'en (Holanda) Meza Barria emoten dau.

1937. Estatu Batuetako Cleveland'en (Ohio) teologia ikasketak amaitzen ditu.

1938. Japonia'ra doa eta Yamagutxi'n parroki lanean asten da.

1945, dagonillak, 6. Hiroshima'ko atomik-lerketak arrapatzen dau, eta osagille danez zaurituai laguntzen deutse.

1965. Erroman Aita Pedro Arrupe Jesusen Lagundi osoko Buruzagi aukeratua izan da.

1977. Aita Arrupe'k Jesusen Lagundian 50 urte bete ditu. Mundu zabalean 28.000 jesulagun dira.

1980. Aita Arrupe'k Lagundiko buruzagitza itxi gura dau, baina Bigarren Joan Paulo Aita Santuak orri ez dau onartzen.

1991. Filipinas'tik etorrela garunetako tronbosis gatzak jota elbarrituta geratzen da. Aita Santuak Paulo Dezza Jesusen Lagundiko ordezkari izendatzen dau.

1983. Jesusen Lagundiko Billera Orokorrak Peter-Hans Kolvenbach (holandarra) Arrupe'ren ordezkari Lagundiko Buruzagi aukeratzen dau.

1991, otsaillak, zezeillak, 5. Aita Pedro Arrupe Erroma'n ilten da.

ZERGATIK SARTU ZAN ARRUPE JESUS'EN LAGUNDI'AN?

Berak esango deusku:

Lourdes'era joan nintzanean, an Ama Birjiñaren oiñetan, Jaungoikoa geisoen eta oiñazetan dagozanen ondoan ain garbi ikusi neban, ezin besterik egiñik, Jesus'en Lagundi'an izena emoteko asmo sendo bat artu neban... Gorputzen osagille izatea gauza ederra da, baiña arimak garbitzea eta zaintzea ohea zala, ikusi neban.

Loiola'ko ate anditik sartu nintzanean, neure etxe-koai agur egitean, biotz-ikara ikaragarria nabaitu neban, baiña gure bizitzako une larrietan Jaungoikoak laguntzen dau...

ATOMIKA LERGAILLUA

Zelan izan zan Arrupe beraren agotik entzun daigun.

Hiroshima'k orduan 400.000 bizilagun zituan, eta ango etxerik geienak egurrezkoak ziran... 1945, dagonillak, 6. Goizeko zortziretan "sirena" soiñua entzun zan. Egazkin bakar bat zeru goi-goitik igaro zan... Zortzirak eta laurenetan magnesio antzeko argi bizi-bizi batek argi egin eban.

Gure etxea Hiroshima ondoan, menditxo baten ostean, egoan. An bizi nintzan 30 japoniar jesulagun gazteekin... Ni etxe barruan nengoan, ata argi bizi arikustean, leiorea joan nintzan. Ur-jausien antzeko zaratata gor-lodi bat entzun neban. Gure etxea oiñarrietatik askatua izan balitz lez, ikaraka asi zan. Danok lurerra jausi ginan. Eskuak buru gainera eroan genduan, eta gure ganera beira (kristel), egun eta orma zatiak jausten asi ziran.

Lur-ikara amaitu zanean, zutundurik batak beseteari, ea zauriturik egoan, begira asi gintzazan. Zorionez danok ondo aurkitzen ginan. Bereala guztiok menditxo ganera igon genduan, eta Hiroshima uria ez genduan ezagutu. Dana ondatuta egoan. Lergailluaren bero ikaragarriaz etxe guztiak sutan egozan.

Zer jazo zan írratiz geroago jakin genduan: 570 metro Hiroshima ganean atomika lergaillua lertu zan... Arratsaldeko laurak aldera lergailluaren beroak añaioak metatu, eta euri zaparradak sugarretan egoan etxeak amatau ebazan.

Illak, zaurituak, erreak millaka ziran, eta gu gure legiñez, laguntzen asi giñan... Ondamendirik íkara-garriena, berbaz ezin esan alakoa, izan zan.

PEDRO ARRUPE'REN ERIOTZA

Azkenengo 8 urteotan Aita Arrupe elbarrituta ezin berba egínik egon da, baiña eriotzari buruz zer jago eukan aurretik erakutsi euskun.

—Zuk, Aita Arrupe, ez al deutzazu bildurrik eriotzari?

—Ez, ezertxo be ez. Zer da eriotza? Bide aldapatsu baten amaiera, bizi latz baten azkena, beste bizi barri bat asteko.

Zer da eriotza? Bizitza onetan ízerdiz erein dogun ziazaren frutua, pozez beterik, eskuratzea. Onegatik íñot, ez deutzat bildurrik eriotzeari.

—Aita Arrupe, ez ete da orí geiegi esatea?

—Ez dot uste. Nik txikitan eleizan entzundako hitzaldiak, bai, eriotzea bildurgarri ipintzen eben, baiña orain kristiñauok badakigu beste bizitzan Jaungoiko errukitsu bat aurkituko dogula, eta gure lengo bizitzako okerkeriak, andiak izanda be, damutzen bagara, Jaungoikoa aita ona dala guretzat.

—Baiña ala ízanda be, bizitza amaitzea illuna da.

—Bai, baiña ni fededuna naz, eta niretzat eriotzea ez da bizitza amaitzea, beste bizitza obe bat astea baino. Bizitza zorionsu orrek, mundu onetako bizitza zeruan osotu, obetu eta betiko egíngo dauala, sínisten dot ník.

—Orduan jendeak zergatik deutso alako bildurra eriotzeari?

—Jaungoikoa nor dan, eta zelako erruki andikoa dan, ezagutzen ez daualako. Baita, baleiteke, bizitza onetako gauzak geiegi maitatuz, bizítzako urteak, alperrik emon dabezalako.

—Bai, baina, dana-dala, eriotza bizitza onetako arazo eta atsegin guztien amaiera dala, ezin da ukatu.

—Bai, ala da, gorputzeko begiz begiratu ezker: baina fedez begiratu ezker eriotzak ez dau barruko bakerik kentzen, pozez bete baino; Jaungoiko gure Aitarekin, Jesus gure Anaiarekin, eta il díran gure etxeko maiteekin, bizitzeko itxaropenarekin, bat egíngo gaitualako.

ARRUPE'RI BURUZ ERETXI EZBARDINAK

Gítxi batzu entzun deutset esaten: "euskaldun batek —Loiolako Íñigok— sortu ehan Jesusen Lagundía, eta beste euskaldun batek —Arrupek— ondatu dau".

Baina asko be geiago dira —ia geienak— alderatziz díñoenak: "Loiolako Íñigok sortu eban Jesusen Lagundia, eta Pedro Arrupek barriz sortu dau".

Berba gítxitan esateko: Batikanoko Kontzília Eleíza osoarentzat izan zana, ori ízan da Aita Arrupe Jesusen Lagundiarentzat.

ZEINTZUK ZIRAN ARRUPE'REN ONOIMEN-BIRTUTERIK ANDIENAK?

Zalantza barik: baikortasuna (optimismo) eta Jaungoikoagan itxaropena. Arrupe'k doain bi oneik ondo lotuta eukazan: baikorra zan Jaungoikoaren laguntzan uste oso-oso jarrita eukalako, eta Arrupe'ren berezko baikortasunak, Jaungoikoarengana indar biziz eroaten eban.

Goian bego.

GOIKOETXEA'tar ÍÑAKI. S.J.

EUSKERA'ren NORTASUNA

(4n. SARIA)

Ipuina zer da? Ameseta, asmakizun, jazokera edo edeztitxo bat? Neure ipuina, guda aldiko jazokera itun eder bat da.

Bilbo'tarra naz eta Bilbo'n bizi giñan, baiña guda sartu zan egun beratan senarragaz batera bere jaioterri dan Otxandio'ra joan nintzan, urtero lez, Santa Maña jaietan gure oporrak igaroten. Laster entzuten ziran, Madrid eta inguruetan greba aundia zegon zurrumuruak; gero, guda negargarria izan zana. Iru-garren egunean, uztalla'ren 22'gn. "Magdalena" egunean, Otxandion izan zan neure ustez Lasterriko lenengo bonbaketa, gogor eta negargarria. Kalean gengoan eta bonbaketa asi zanean Udaletxera sartu giñan. Bonbaketa orretan, erritar eta erbesteko 65 inguru il eta beste ainbeste zauritu izan ziran. Illen artean, neure senarraren arreba bi; 19 eta 22 urteko neskatilla gazte ederrak. Andikona'ko plaza txikitxo izan zan odolez betea ta geien il ziran tokia. Bertako iru etxeetan, 5 lagun bakotxean il ziranak be bai.

Eguraldi ederra, lan gabeko eguna, emakume ta gizon, eguzkia artzen eta egunekoa irakurten. Goian egazkiñak, erriko argazkiak ataraten zebiltzalakoan gora begira jarri giñan, baiña aren gogua beste bat zan; gaiztoen antzera, bean egozan errubakoak iltea.

Ondorengo, Otxandio, agintarien erabagiaz toki arriskugarri izentau eben eta senarraren aldeko sendiagaz Bilbo'ratu egin giñan. Bilbo'n amaika illabeteke guda igarota, frankotarrak sartu baiña iru egun lenago, Mioño Santander'eko erri txikitxora joan nintzan senarraren gurasoakin. Nire senarrak, Erri Zaintzan lan egiten eban guda sasoiaren, eta iru egun geroago Erri Zaintzako buru ziranakin, Zalla'ra joan zan, Otxaran deritxon Jauregi batera, Monzon jaunaren agindupean.

Mioño'n bederatzi egun egin nebazan eta an eza-gutu neban gabeko bonbaketa ta bildurgarriko egunak. Euzkadi'tik urtetan ebenak bidean erailteko bonbaketak.

Ekaiñaren 24' gn. gabeko amabietan Santander 'tik etorri zan senarra, nik ez nekian an zegoenik be ta oetik atara ta erdi billosik Santander 'era eroan nindun eta eguna argitu ta gero, beren bulegoko lagunak, emazte ta aurrak egozan Hotel batera.

Santander'en, zorionez, bost egun bakarrik egin nebazan eta egazkin eta bobaketarik ikusi barik urten neban. Euzko Jaurlaritzak, Bilbo'ra janariakin joateko ziran itxas-ontziak, Santander'era bideratu ebazan, emen utsitu eta ontzi orretan, emakume aur eta adifnekoak erbestertzeko.

Urten bear gendun aurreko egunean, Monzon jaunak, bere menpean lan egiten eben langilleen emazteari dei egin euskun, agurtu gura gaituela esanaz eta orrela batu giñan andra talde bat. Sardinero'ko etxe polit bat izan, itxasora begira. Monzon'en itzak, oneik ziran: Zuek biar urtengo dozue Frantziarantz eta tamalgari izango dozue senar barik urtetea baiña gizonak eurak nai dabe orrela izatea, gero emen bear diran neurriak nasai artzeko. Ulertu dozue? Itz oneik entzutean, emakume batek esan eutson... bai ulertu dogu, baiña gure senarrentzako ze asmo edo bide daukazue? Monzon'ek, leioa zabaldu ta itxasora begira jarri ta esan eutson; zuek, biar ortik joan bear dozue ta guretzat be ori izango da bide bakarra. Noiz eta zelan izango dan iñork ez daki. Bakotxak berak al dauan eran, Euzkadi egoera larrian dagolako.

Deun kepa, San Pedro egunean gabeko amarretan itxas ontzi ondoan egoteko agindua geunkan, Aurretik sartu ziran emakumeak aurrakin eta gero adifnekoak. Ni, bakarra nintzan eta goizeko irurak ziran, senarra agurtu ta barruratu nintzanean. Alkarregaz luzero egon arren, itz gitxik urtetan euskun. Barruratu nintzanean, umeak ullunetan lo egozan eta ni be neure maleta gañean jarri nintzan.

Laster, zarata aundi barik itxas ontzia ebillala oartu nintzan eta barru negarrez nengoan. Eguna argitu zan, itxas sakonean gengoala, guk barruan illun izan arren. Goiko aldean abots zaparradak entzuten ziran baiña ezneban adorarik zer jazoten zan ikusteko ta geldi nengoan. Onetan illuntasunean, esku gogor batzuk lepotik oratu eusten. Nire senarra zan. Besar-kada luze, itun eta pozgarri baten lotu giñan eta berak esan eustan zaparrada arek, iru milla tik urrundu giñalako izan zirela. Zelan zagoz ba zu emen? Al dabenak iges egin esan dabe, egoera txarra dago-ta. Orrela ontzia ibiltan sai danean, barruratu naiz eta emen nago, beste batzuekin batera. Ez dakart, ez dirurik ez jantzirik, an geratu dira danak. Ekaiña'ren 30gn. eguna zan.

Urrengo eguneko arratsaldean, Puillak'en gabaz sartu giñan eta bultzi bietan Burdeos'era. Nire taldeko emakume, aur eta berrogeta zortzi urtetik gorako gizonak, Paris aldera bialdu ebezan eta nik mezedo bat eskatu neutsen, neure ama dagon Terrasson Dordogne'ko errira joan nai neukela, loraillan Santurtze'tik urten eta erdi geiso ebillalako. Eskabíde au ontzat artu eben. Orrela ba ni Terrasson'era ta senarra Baiona aldera joan giñan. Ogetairu egun egin nebazan neure ama ta lagunakín. Egun baten senarrak idazkiz dei egin eustan labidea biontzako lortzeko aukera egoala-ta Baionara joateko ta uztaillan 25'gn., Santiago egunean, goizeko zortziretan Terrasson'en Burdeos'erako bultzía artu neban, gero andik Baiona'ra joateko. Txartela ordaindu ta iru franko terdi bakarrik geratu jatazan. Burdeos'en, Hendaya'rako artu bear neban baiña ez nekian Dax deritxon geltokian bultzía erdi bi egiten zala, bat Marsellara'ko ta beste bat Hendaya'rako. **Emen ipuiñaren mamiña:** Bidazti batzueri itandu neutsen Baiona'rako ondo niñoian eta baietz erantzun eusten. Orrela ba, nasai nengoan, baiña nik ez nekian zeín talde zan bidezkoa ta Dax'en iragarri izan arren ez neban ulertu. Orduak aurrera, Baiona'ra eldu bear zan ordua igaro zala ta aurrera joiala ikusirik, estutu nintzan eta Pau errira sartu giñanean oartu nintzan okerreko bidetik niñoiala. Seitia erdiak inguruan eldu giñan Tarbes'era. Larri nengoan senarra Baiona'ko geltokian lauretako bultziari begira egongo zala oldoztu edo pentsauta. Eskerrak geltokiko langille batek nire maletan izena ikusi ta estu nengoala oarturik, zu euskalduna zera? itandu eustala. Bai, euskalduna naiz eta galduta nago. Azaldu neutson zer jasoten jatan eta berak eroan nindun geltokiko nagusiarengana. Nagusi onek, nasai egoteko esan eustan. Laster dator Marsella'ko bultzia ta bertan joango zara Dax'era ta andik Baiona'ra ta gabeko amabietako elduko zara. Txartel beragaz joango zara ta ez arduratu. Etorri zen bultzia ta beriala agindu euston euskaldun Sara'ko mutil oneri, nire maleta eroateko izentauta neukan lekuraño. Ibil-aldi on bat opatu eustan eta nik eskerrik beroenak biari emon eta urrundu ziran. Ni jarri nintzan ondoan baiña, lau gizon gazte berbots zolian mus-jokoan ordago baten euskera ederrean zebiltzan eta nik ori entzutean, biotz-biotzeko negar zotiñakin asi nintzan. Lau'etatik bat oartu zan nire egoeraz eta zergaitik ziran itandu eustan. Galduta nabil edo íbilli naz eta zuek euskeraz entzutean, ezin izan dausat negarrari eutsi. Onek lagunari esan eutsen... emakume au euskalduna dok eta eurok egozan lekura eroan ninduen. Joko tresnak

batu ta itaunetan así ziran. Ez estututeko esan eusten eurak lagunduko eustela senarragaz alkartu arte. Gozoki batzuk jan, neure egun guztiko jana ta orrela eldu giñan Baiona'ra gabeko amabietan.

Nortzuk ziran agertukeran auren ízenak emon eusteazan. Lau pelotari Italia'tik Euzkadírantza etozanak ziran. Oso ondo egon ziran nigaz eta ni, orain be, jazokera au ídazten nagola, negar malkoakin nago, Jaunak ipiñi ebazalako nire bidean. Bildur barik euskaldunen artean gaizkatuta nengoan.

Bien ízenakin bakarrik gogoratzen naz, Vega ta Abasolo. Vega uste dot adíñekoena izango zal. Berak esan eban euretariko batek, Baiona'ra eldukeran, niri laguntzeko eta Hendayan Hotel Garen alkartuko zirela.

Geltokitik urten eta Abasolo'k lagundu eustan Plaza orretan Biarritz'erako tximist-burdiraño. Ník Beyris irakurritakoan, nire senarrak bialdutako zuzenbidea ori zala íkustean, txartelak emoten ebazan emakumeari euskeraz itandu neutson, zeinbat zen Beyris'erako ordaiña. Franko bat terdi esan eustanean, ordaintzeko naiko neukala ikusirik, pozez Abasolo'ri esan neutson; zoaz laster geltokira oraindik bertan dago bultzia ta ni emendik bakarrik joango naz eta eskerrik beroenak emon eta ariñeketan joan zan lagunakana. Ibilte ori ordainduta, franko bí geratu jatazan.

Beyris'etik Maison Kabana'ra, naiko bide luze dago batez be gabeko amabietatik aurrera ta argi gixtiagaz eta maleta astunagaz ibilteko.

Aldi bat emen egin eta nire senarra Landes aldera Ler edo piñuetan lan egitera joan zan eta ni, eskerrak Askain'go Iturria izeneko mutil euskaldunari, aur bat zaintzen bertan Kabanen geratu nintzan.

Esan bear dot iru estu-aldi onetan eta egun batean, euskerak atara ninduela.

Bilbo'tik urten gendunetik, ibilkera luzeak izan dira: Iru urte Frantzia ta Ipar aldean eta ogeta azaortzi Argentinan eginda, Otxandio'ra etorri giñan, Aberrian íltek.

ALZOLA TA BARAINKA'tar ELIXE

SASI-MAIXUKERIAK

!AMAICA...!

Sasi maixukeria au "amaika" gazkoa da.

"Amaika" berbeak, danok dakizun lez, asanai bi daukaz. Bat; erderazko "once"rena. Bi; "asko"ren bar-diña.

Lenengoaz ez da eztabaidarik; beraz, bakean lagako dautsagu berari. Bestea, bigarrena da zer-esana emoten dauana; niri bai beintzat. Ta berazaz zerbait esango dot.

Ez diñot olan ondo dagoala ta beste olan txarto. Nik dakiedan gramatika ezer ez da auzi enezaz ziur itz egiteko. Nik esago dodana, zelan ikas dodan, izango da, eta orretaitik nire belarrietarako zer dan ondo ta zer txarto.

Nire ustez "amaika" berbea, esaldiko garrantzitsuena lez eta enfasean erabilli bear da.

"Amaika arrain eder jandakoa da Arranondo'ko Deizalea!" (KRESALA).

"Amaika joan-etorri agindako ontzia geure San Pedro zarra!" KRESALA, 66/36.

"Amaika arrisku erabilli doguz itxasoan!" KRESALA, 68/11.

"Txanogorri'ren emazteak amaika bidar erosi eutsan iru errealeko egur txarto enparantzan." KRESALA, 109/35.

"Amaika ordu igarora naz ni solo ondoan Txomin Txikigaz berbetan," IPUIN BARREKA, 32.

"Amaikatxu ordu gozo igaro eroiazan berak kontu-kontari azuria lagun suetea!" IPUIN BARREKA.

"Amaika ollagorri bizia kendu niok!" AUSPOA 137/138.

"Amaika alaitasun da serbitzu egindako kampaia." Txomin Garmendia, EL DIARIO VASCO 2-8-1987.

"Amaika olako egindakoa/izango zan atzo ura". Txomin Garmendia, EL DIARIO VASCO.

Goiko esaldiotan batzuk ba-daroe admiratibo ikurra ta beste batzuk ez baiña danak eroan bear leukee.

Atsegin jataz esaldi guztiok eta neuri lez beste edozeiñeri be atsegin izango jakozala uste dot.

Ostera, ez jat belarrietan ondo sartzen ondoren dazozan esaldietako "amaika" berbea. Ez da berba ori esaldietako garrantzitsuena ta orregaitik txarto etorri leiteke. Niri beintzat ez jataz sartzen esaldi orrek.

"Gizonak irribarre bat zabaldu zuen, aurrean duen oztopoa hamaika aldiz gainditu duenaren moduan." A. Urretavizcaya.

"Hamaika aldiz ikusia badut ere, ez naiz sekula ohituko gizonezkoen jokaera horretara, ezin ulertu dut nola eror daitezkeen hain erraz itxurazko edertasunaren tranpan". A. Urretavizcaya.

"Eta hi ikus hindudan behin, eta berriz eta hamaika aldiz; itsasoa herori bahintzan". Txillardegia, ANTOLOGIA DE LA NARRATIVA VASCA AC-TUAL, 172 orr/.

"Erabat ados nago hamaika azpijoko dagoela "entsufek" bakarrik gainditzen dituztela azterketan eta horiekin iadanik gaindituteko kopurua beteta dagoela". Izaskun Villareal Alvarez".

"Ez da hain aspaldi udeberri atarian ginela, bazter guztietan hamaika margotako lore barrien jaiotza, koloreen jai festa eta gizon eta emakumeen aste bukaerako atsedena". Joseausin Arriola, EL DIARIO VASCO, 5-4-1987.

"Inbentoreak eroan moduan imajinatzeen ditugu, begirada galduaz, ilejera nahastuarekin eta buruan hamaika idea". P. Aristi, EL DIARIO VASCO, 27-3-1987.

"Ez arratsalde hartan zer egin ez zekielako, ezta aspertzeko beldurra zuelako. Alderantziz: alde haurretik hamaika aldiz gauza bera agindu ondoren beste hainbestetan hitza jan ez ba'lu, arratsalde hartan ez zan liburutegia txukuntzen asiko". A. Urretavizcaya, EL DIARIO VASCO, 17-8-1986.

"Ba ziran urte batzuk Bitoriano Gandiaga ixillik zegola. Noizpait eman ba zizkigun ere amaika bertso jator eta borobil, aspaldi ontan ixillik zegoen. "S. Aizarna, EL DIARIO VASCO, 29-4-1985.

"Garaitutakoaren hilketak ordea kezka sortzen zion, egun ez daitekeelako horrelakorik pentsa ere, ez da zillegi, hamaika bat arrazoi garai hartakoa baiño sendoagoa burura bazitzaion ere hilketaz zurrizko". Jon Unanue López, EL DIARIO VASCO.

Goiko esaldiok ez jatazala atsegin esan dot ta oraindi askotaz gitxiago jat atsegin ondoren datorrena, "amaika" berbea ezetzko esaldian sartuta dagoalako.

"Ez dago, agian, gure eskuan amaika bideren mugarik, ez gure asmo soilletan gertakuntzen oñarrik". ARRANEGI, 150 orr/.

Erkiaga'k "amaika" berbea ondo erabilten dau, ta iñoiz (noizbait) berba orregaz esakera politak esan be bai, ondorengoa lez Lekeitio'koa izango dana.

"Amaika amaika ta erdiko ibilli izango ziran or!"

Baiña beste ori ez da ondo esana, nire ustez. Ezezko esaldirik ez da enfasisean esaten.

"Amaika" berbeazko Sasi Maixukeria onetan aita-tzeko berebizikoa da EL DIARIO VASCO'ko Cartas al Director saillean agertu zan eskutitz bat. Bere egilleak berba orregaz jolastu guraz egindako idzlantxoaz zala zirudian; zumua atara eutsan berba orri. Ara bera:

"Hamaika mila esker; HABE"

Hamaika urte dira euskera irakasten hasi nintzala. Haiek hasierak haiek! Hamaika gauza aldatu da ordu-tik hona euskeraren ikaskuntzan eta irakaskuntzan. Aldaketan zerikusi handia izan du, nere ustez, HABEren sorrerak eta ihardunak. Hamaika esker onen jabe eginda, beraz, Helduen Alfabetztzerako eta Euskaldkuntzerako Erakundea.

Eta ní ezin isilik egon nere esker ona azaldu gabe.

Eskerrak, HABE, sinetserazi diguzulako euskara ikas eta irakas daitekeela, jakinduriz arrunta izanik ere.

Eskerrak detergenteen no gehiagoka antsuan sartu ez zaralako, "aprende euskera en tres semanas" edo antzeko slogan gezurteroak erabilliz eta amets sasi-koak sorteraziz.

Eskerrak metodo eta metodologia berririk sortu ez diguzulako, beti izaten baita iluminaturen bat me-

todo berri bakotzaren atzean, eta bait gaude merke-zurreko merkatarien beharrean.

Eskerrak HABE, egunerako ogia gehien maite dogun lanean ihardunez irabazteko aukera eman diguzulako. (Egia da mila inguru garela helduen euskalduntzean eta alfabetatzean egun osoz dihardugun irakasleok? Hamaika gutxiago baziren hamaika urte! Hamar ba ote?)

Eskerrak itxurazko eta tajuzko material didaktikoz hornitu gaitzulako (liburu, ikus-entzunezko, aldizkari...) Bai Horixe!

Hamaika esker euskaldun berriak sortzeak ematen duen pozaren jabe izateko aukera eskaini diguzulako.

Hamaika mila esker, HABE, aurrera begira bizi zarelako eta oraindik beste hamaika poz ematekotan zaudelako.

Ai hamaika HABE balitu hamaika amets egin duen herri honek, ametsak lora bihur daitezkan ekaitzek astindutako baratzean!

LURDES EGURROLA AÑAKABE

("Aguirre eta Lekube'tar J.A." Euskaltegiko irakaslea)

Or eskutitzaren egilleak "Hamaika esker" eta "Hamaika mila esker" idatzi dauana, nik, "Eskerrak asko" ta "Milla esker" (edo "Millesker") idatziko neban. Ta beste nonbaiten be ez neban "Amaika" sartuko.

Ez diñot esaldi orrek txarto dagozanik; orrenbeste esaten ez naz ausartzen. Bakarrik, nire belarriak ez dagozala orretara oituta, esango dot.

"Amaika" berbea enfasisean daroen esaldiak besteengandik bereizten dituan bere dabe. Berba orren urrengokoan izaten da soiñuaren kontu ori. Artu daigun esaldi bat.

"Amaika bidar joan naz Urkiola'ko erromeriara!" = Cuantas veces he ido a la romería de Urkiola! = Once veces he ido a la romería de Urquiola.

Lenengo esan naian, "bidar" berbako silaba guztiak doiñu bardiñean esaten dira. Orixe da enfasisean esatea.

Eta bigarren esan naia daukanean "bidar" berbearen azkenko silabaren doiñua bera jatsiten da.

KAMIÑAZPI

AITA ARRUPE, JOSULAGUNA

"JAINKOTAR ETA LUDI ONTAKO GIZONA"

Scheifler Amezaga'tar Josē Ramon

Aita Arrupe Josulagunaren eriotzeagaz batera, ludi osotik zear euskotar irudiaren izena ta egiazko marrazkia eroan dauan notin bat joan jaku. Bai ziñis-dunak, baita ere ziñizgabeak beragan ikuskatu dabe ideologi ta aurre-asmo oker guztitik gain dan balio kopuru somagaitz bat. Bera ez bere izatez bakarrik, egitez ere bere barne-barnetik jainkotiar zioak eraginda bizi izan da, ta beragan betetu oi da esaera zar egiazko au: "Graziak" ez dau izatea desegiten", ta bai bestalde biziro aberaztu leike, Josulagun ospetsu onetan jazo dan legez.

Berein laterritik zear arturiko ikasketa orokorrak, ots: Osakuntz ikas-saillak Madrillen, filosofi ta teologi ikasketak Loiolan, Marneffen (Belgican), Valkenburg'en (Holandan), Misourin eta Cleveland'en (USA'n) bere apostolutzak lenengo Mexico'n alboratuekin, gero Japon'en, Nagusi ta asibarrien Irakasle bezala, ta bere izaeraren zabaltasunak, osokiro begikoa ta ingurumariko lagunentzat guztiz baikor eta edatsua zanak, bilbotar onekaz "euskotar orokor" bat egin eben, jakintza guztiekaz egokitu ezeze uretan buru-belarri sartu zan, kutur bakoitzaren gun berezia lortzeko. Ez eban iñolango gizakumerik bereizten, eta beretzat edozein notin naiz lurralde, besterik ez balego bezala izaten zan. Ori ludiko edozein tokitan. Min ebenakaz min gaitzez egin oi zan (eta ori Hiroshiman lenengo atomik-lerkaiakaz egiztatu eban) eta jazokizun zorionsuetan bera be alaitasun osoz poz-tuten zan, bai "Athletik" irabazten ebanean, baita ere Japon'en jopardar gezi-uztaia erabilliaz garaille urte-ten zanean. Kirol onen sustraiak ere sakon aztertu ebazan.

Askorentzat ez-uste bat izan leitekean 1965'ean Josulagunen Batzarrean Josu Lagundiko nagusi Orokorra izentatu izatea.

Urrunegi egoan bera, Sortalde azken-mugetan, baiña bere ostera ariñak Europa'tik eta Ameriketatik

zear gaisoen laguntasunaren billa ta Japon'go misi-ñoaren berriztapena jadesteko egindakoak, lortu eben askok be askok bere oiz-kanpoko zeintasunak onartu egiezala. Orrela Loiola'tar Iñigo lenena izan zan bezala, Josu Lagundiko 29'garren Nagusi Orokorra beste euskotar bat zan.

Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusiaren urteak ziran eta, bai bere barnean, baita ere bere barrenetik at lagundiaren agintaritzan, Batzar Nagusiaren eragitea nabaritzen zan. Asko ibillia zan Aita Arrupe, asko oartua. Andik aurrera txostenak batuagoak ziran, ikerpenak geiago. Jainkoari erregutu ezeze argi bizi-bizi bat eskatu eutsan bere aurrez aurreko lan barriari indartsu oratzeko. Eleiz Batzar Nagusiak Eleizaren arpegiari aldakuntz ezezagun bat emotsan eta Kristau izeneko laterriak ebezan bereiutsegiteak betik bat deituriko Irugarren Mundukoak, agirian egozan.

Josuren Lagundiak, Eleizaren ardurapenai aurea artzen oituta egoanez, bere antolabidea aldatu bear eban. Ludiak, Jaungoikoa alboratuz, txarto ulerturiko sekularizatze bat ugaritzen zan aldi artan, benetako kritautasun baten bearrizan geiago eban. Alan da be Jaungoikoa onartzeko biderik ziurrena, ludian egiazko zuzentasuna ta ziñismen bero-bero bat be-rriztatzea ziran. Mundua goibe aundi baten bizi zan. Ugaritsun eta txirotasun tarteko goibe ikaragarrian. Ezeukiak eta errukarriak baiña, erruz, aberatsak eta aukera-zaleak baiño geiago ziran. Ziñismena ta zuzentasuna zati-eziñak ziran. Zuzentasunak ziñismenaren aupada bizi bategaz bizitz azken zorionsu bat lortu egian.

Orrek sarritan josulagunen bizibide ta ekintz batzuetan 180 maillako aldakuntz bat egitea eskatzen eban. Ez eben guztiak ulertu ta baten batzuk ezta onartu be gura izan. Bestalde, ainbatek, euren errietako ministeritzan ikustatu oi eben ezin-besteko txirotasunaz larrituta, ezbaiezko politik neurrietara jo, naiz puntu batzuetan ziñismenaren aurkakoak izan zeintekezanekez bat egin eben. Josulagun geienak aldakuntz ori alaitasunez artu eben, talde txikiago batek alan da guzti, tinko-tinko lengoan iraun eban. Ba-

tikanorako bide arteza ta bitartekotasuna ebenez, Aita Santua ainbaten larritu zan. Aita Arrupe'rentzat keskak eta kurutz-bideak asi ziran. Josulagun geienak ostera, euren ekintz barrizaleagaz pozez gaiñezka egozalarik, Jesusen Lagundiari Irugarren Munduan batez be, beste bereizgarri bat emotsen.

Bere lan ezin gañezko ta ikaragarriak batetik, bere betiko ildurak eta laztasunak, biotz barnean muin-muñetan nabaritzen eban utsekabeaz nasturik ebiltzenak bestetik, Aita Arrupe'ren osasuna zati on baten ondatu eben. Bere agintaritzaz izteko lenengo urratsak emon oi dauz. Lagundiko arauak ori eskatzen bai eben. Auxe dogu erabidea: "nire adiñean eldua nazanez eta berak ezartzen dauan legez...". Juan Pablo II Aita Santuak Batzar Orokor baten eginbideak eta gertakizunak geldiazoten dítu, azkenean uko-egite ori onartzen bada, jarraitzaillea izentatzeko.

1981'eko Dagonillaren 7'an, Filipinasetik etorrela, eta Erromara eldu baiño len, buruko trombosi edo odol-gogordura batek Aita Arrupe lur jota izten dau. Orain argi dago gaisotasunak ez dautsala Aita Arrupe'ri ítziko agintaritzan jarraitzen. Jarraian legezko díran antolabideak artuko díra. Ots: lendík ezarrítako Ordezkari orokor bat izango da. Bertako josulagunek biotzetik urteníko agur beroenak emonaz Aita Arrupe goratzen dabe. Ustekabean Aíta Santuak esku artzen dau. Eginpideak geldiazoten dítu ta Josu lagun-kondairan ekinbide arrigarri bat artu oi dau: Ordezkari berekiko bat izentatzen dau Aita Santuaren izenean Lagundian agíntzeko. Ortarako Erromatar kurian txito ezaguna dan Aita Dezza izango da auke-ratua.

Agerkariak uste dabe Lagundian alderdíkeri edo Zísma gertatuko dala, Josulagun nagusiek geien bat euren aginpideak itxiko dabezela, abar eta abar...

Ez da orrelakorik jazoten. Aita Arrupe'k eskatzen dautse guztioi baretasuna ta Aita Santuarenganako menpetasuna. Ortan bera da lenena. Ignazio Deunaren eredu bizia da. Menperatu ta biotzez otoítz egitea da bere jardunbidea.

Jaungoikoak ez dautso utsik egingo, ez berari ezta ere Lagundiari. Aita Arrupe'ren menpetasuna, guztientzat eredu bizia da, ta danok jarraítzen dautse, orok euren lanean díardue ezer bere jazo ez balitz lez. Aita Dezza'ren antzeak amaibíde ezin ohea damotso gertakizunari.

Andík urte bíra, ezelango aldakuntz barik, ezelango iztillu ta oztopo barik dana gertautu dago Aíta Arrupe'ren agintaritzaz betiko erara Aita Peter Kolvenbach'ek eskuratu dagian. 1983'ko Iraillaren 13'a zan.

Bere azkeneko urteetako bizitza Aíta Arrupe'rentzat batetik gizataldeetatik urrindutakoa izan zan, besterik deritxogu Jaungoikoagaz batu-batutakoa. ikusí dagigun orain Aita Kolvenbachen erantzuna Erroma'n Euskal Jaurlaritzako Ordezkaria berean artu ebanean, eta onek esan eutsona entzun ondoren. Ordezkariak: "Aita Arrupe'renganako ederrespena agertu oi dot, niretzat gizaldí onetako gizaseme aundienetaríko bat dan ezkerro". Aita Peter Kolvenbach'ek: "Bai Jauna ta berresatera noatzu beti díñodana: Arrupe ez zan Arrupe izango euskotarra izan ez ba'litz.

ARREGI'tar JOSU'k EUSKERATUTA

ARRAIN KONTSERBAK

Sarri izan da kontserbako arraiñaren merkatua etorkizun illunekoa.

Banaketan ondo, batzutan polito eta sarri tatarrez.

Lengo gizaldiaren azkenetan, arraiña arrantzatuarren, bideak falta urteera on eta egokia emoteko. Eta ori lengo txalopak, nai eta txalopa andiak deitu, arrain asko ekarteko egokitazunik ez eukela.

"Besugos y arenques vinieron de Bermeo" esaten eban Hita'ko Artxipresteak bere liburu baten.

Bermeo'k suertea euki eban lenengo egin ziran errepideekin. Baiña Lekeitio, Ea, Elantxobe, Ondarroa... emen geratzen ziran urteera egoki barik.

Mutrikun 1862 urtean asi ziran arraiña Madrid'era bialtzen. Egun batean joan eta bestean etorri, Urkiola'rako osteraren antzera eginen eben orduko zaldiburdiak. Bakoitzean 100 arrua eroaten zituen, au da, milla ta berreun kilo inguru. Eta Mutriku'n lez Ondarroa'n eta beste portuetan, arabarrak, naparrak eta errioxarrak asi ziran arrain tratuan. Ardaua ekarri ta arraiña eroan, geienetan Arrantzale Kofradiak euketzan pailaetan brixiduta. Mandazaiñak, arrieroak izan ziran.

Orrelaxe asi ziran lenengo eskabetxe egilleak edo gertutzailleak.

Gero ojalata agertu zanean, bide barriak ikusi ziran arrain gertute, egitura, garraio, irauntasun eta ziurtasunerako.

Arrain gazitua egiten italiarrak izan ziran aitzindari. Urtenbide on bat billatu nai izan eutsen emengo arraiñari, berez emengo antxoa (bokartea) beste uretakoen alboan obeago dalako. Orrela zalako, Sizilia'tik etorri ziran lenengoak, emendik Alemanira bialtzen zituen antxoa gazitu upelak, larogei kilo inguru arrain artzen eben "siziliar" deiturako upeletan. Eta andik Italia'ra, an iñok igarri ez egian arrain on ori nun arratzatu eta gertuten zan. Italiarrak izan ziran emen antxoa filete-egitura, au da, antxoa gazitua garbitu, zabaldu, filetetan ebagi eta oliotan ipini eta saltzen asi ziranak.

Amalauko europear gerratean, egon zan alako biztuera bat merkatuan eta gertutzaille ausarti asko sortu ziran, baiña bertan bera joan zan berotasuna eta laster moztu ziran orduko ondasunak.

Gero, gure azken gerrate ondorengo biztualdia, barriro europar gerratea bitarteko zala. Eta andik laster, barriro berakada. Gertutzaille asko bankoentzako lanean ibili zirala esan bear. Ondasun argalak eta arraiñaren salneurriaren igokera eta era barriko arrantzuen gorakadari ezin jarraitu.

Urte batzuk orrela ta bat batez antxoaren beraldia, arrantzuetan. 1964 urtean irurogei milla tonelada antxoa arratzatu ziran Kantaurin. Orain urte bi zortzi milla tonelada bakarrik. Igaz zerbait geitxuago, ama-zortzi inguru.

Eta danok dakigu urte urriak ez dirala urrezkoak izaten.

Beste aldetik, len egaluzea emen eta denboraldi laburrean arrantzaten zana, esateko lau-bost illabetako arrantzua zana, txalopak anditu, egokitu eta artarako gertutzean eta Canarias eta Afrika aldetiko arrantzutara joan eta ango arraiña ekartean, fabrikante askorentzat jarraitu eziñezko gertatu zen eta merkatuak be murriztu egin ziran.

Konserbagille askok euren bezero ziurrak euketzan atunkientzat, denporaldian urte guztirako erosten ekienak, ba ekielako ala egin ezik, arrain barik geratu eikezala. Gero... egiteko aukera urte guztirako zabaldu zanean, lengo milla edo geiago kutxa erosten ekiezan bezeroak, euren erosketak banakatzen asi ziran, ba ekielako len egiten ez zan lez, orain urte guztian gertuteko aukera egongo zala eta orrek, askoren almenari, potto eragin.

Gaur emengo atunkien merkatua, ostal-etxe eta barretan dago. Sektore ori da euneko irurogei ta bost (% 65) erosten dauana, Supermerkatuak datoz gero, euneko amazpi inguru erosten (% 17). Gero eliketako dendak, Oneik euneko amabost inguru euregatatzen dabe (% 15) eta azkenez hipermerkatuak euneko bostagaz (% 5).

Bear ba'da Estatuko zeaztasun oneik zerbaít aldatu egingo dira euskal lantegientzat, supermerkatu eta hipermerkatuetan errezago sartzen diralako kanpokoak, euskaldunak batetik ontasuna obeto zaintzen alegintzen diralako eta kostuak be andiago daukezalako.

Orain Arantzelen polítika batetik, Merkatuen erabidea bestetik eta orioen erabillerak, buruauste ugari ekarri dautsez kontserba-gertatutzalteei.

Aurrera joko zalakoan, europar merkatu asko zabalduko ziralakoan, Merkatu komunak atzerakada ekarri dautse. Kontuan auki Portugal'ek, españar estatuko leiakide alegintsu danak euneko amarreko (% 10) arantzela lortu ebala bertako kontserbaentzat eta España'k euneko ogeitabost (% 25).

Orrezgain Portugal'ek bost milla tonelada sardiña eta milla tonelada atunkirentzat zama bako bialtzeak lortu zítun.

Alegiñak egiñarren gauza gitxi lortu izan da merkatu onetan. 1989'ko Uztailatik aurrera España'ko kontserbentzako arantzela kentzea lortu zanean... merkagaí guztientzako zalakoan, sardiña eta atun kontserbak oraindik be lotuta geratu ziran. Aín zuzen be emengo gertupidetako euneko irurogei ta írúa (% 63) lotuta geratu. Orrela 1984 urtean CEE'ra 693 tonelada kontserba bialtzen ba ziran be, kopuru ori urtetik urte beratzen joan da eta 1988 urtean 160 tonelada bakarrik bialdu ziran. Eta orde Marruekos eta Portugal' dik len baíño ugariago saldu da, emengoen kaltean, areik arantzeletan daukezan aukera geiagoei esker.

Gauzak orrela, ez da arrígarri gure itxasertzean gero ta arrain lantegi gítxiago ikustea.

Gaur, Gipuzkoa'n, esate baterako, amabí etxek bakarrik jarraitzen dabe arrain-kontserba eta gazítu lanetan. Deba'n (Itziar'en) bat, Donostia'n bat Getaria'n lau, Mutriku'n iru eta Orio'n iru.

Bizkaia'n Lekeitio lako arrain-kaí jator baten, iñor ez da gelditzen bertakorik. Bermeo'n bederatzik irauten dabe, Berriatu'n bik, Ondarroa'n zazpi eta Gernika, Gizaburuaga eta Markiña'n bakoitzean bat.

Diru kontuan jakiña da Garavilla, S. A. etxean 5 25'en Bankoak sartuta dagozala. Ba díra etxe bi alemaniar kapitala daukenak eta batek italiarra.

Egunotan agertu da Gípuzkoa'ko lantegirik nau-sienean, bost Arrantzale Kofradia jaubetu bear izan dirala bertako kapitalaren osotasunagaz. Zabaldua da Bermeo'n lantegi bi alkartu egiten dirala eta ango Landabaso'n barrí bat sortzeko.

Españar estatuan 173 arrain kontserba lantegi dagoz danetara eta 130 naiko dirala esaten da. Orrek be zerbait erakusten dau.

Beraz... datozan urteak, Merkatu komunean bear lez sartu ta gelditu arte... urte larriak izango diran itxurak dagoz arrain egitura onetan.

Eta nun merkatu barria? Rusia'n?

Geroagoko argitasunen zain egon bear.


AUGUSTIN ZUBIKARAI



BAKE-ZUBI

(1.º SARIA)

~ -a A T Q - ' | \



Nik ezagutzen dodan lurralde polit, zoragarri batean paitak eta oilloak bizi ziran.

Paitak Paitamendin eta oilloak Oillomendin, eta bien erdian ibaia.

Antziña, ibai alde batetik bestera joan-etorria egiteko zubi zabal bat egoan, asaba zarrak egindako arlzkoko zubi ederra.

Zubi orretatik paitak Oillomendira eta oilloak Paitamendira lagunak lez alkartasun osoan, ara ona, joaten ziran, eta danak batera alaitasun ederrean aberzale jaialdi pozgarriak ospatzen ebezan. Ikusgarriak ziran! Beste lurraldeetako txori eta egaztiak gure paita eta egaztiai erreminez begiratzen eutseen.

Paitamendi eta Oillomendi gaineko zeru ozkarbian ez zan lainorik ikusten. Beti udako eguzki beteak argi egiten eban. Zorioneko bizitza oneri eskerrak, paitakumeak eta oilloen txitak asko ugaritu ziran, eta txori eta egaztien Lendakaria aukeratzeko Batzar Nagusia biltzen zanean, paitak eta oilloak alkarturik beti nagusi izaten ziran...

Onegatik beste txori eta egaztiak, inñartsiz biotza errete alkartasun ori, zelan edo alan, apurtu egin bear zala, erabagi eban...

* * *

Zoritarreko egun goibel batean Gorrotomenditik egaz, gaua baiño baltzagoa zan bela moko-makurra etorri zan, eta zubi ondoko zugatz baten puntan jarririk, infernuko kantu au "krok-krok" asi zan kantetan:

"Zertarako da Paitamendi eta Oillamendiko zubi zar ori?"

"Oilloak eta paitak naste, uf! Ortik ez dator gauza onik".

"Paitak Paitamendin eta oilloak Oillomendin bizi bear dabe".

"Onela bakota zer eta zelakoa dan garbiago jakingo da".

Bela baltzaren kantua belarrietan pozik artuta, burubako paita eta oillo batzuk, bela moko-makurrari sinistu egin eutsoen...

Orduan zeru garbia illundu zan. Laino baltzak metatu ziran. Trumoi eta tximistak jo eben. Euri zaparradakaz ibaia arrotu zan, eta asaba zarrak ainbeste izerdiz jasotako arrizko zubia urak eroan eban.

Batzuk, zubia urpean ikusita, negar egin eben, ama galtzen danean egiten dan bezelako negar garratz-samiña... Eta asaba zarren azurrak illobian ikaraz dar-dar egin eben...

Beste paita eta oillo burubako batzuk, ostera, esaten eben:

"Beleak arrazoia zeukan. Gauzak garbitu egin bear dira, garbitu".

"Orain jakingo dogu argi eta garbi bakotxa zer eta zelakoa dan".

Arrezkero, lotsagarri, paitak eta oilloak edozer aitxakiagatik beti alkarrerik mokoka, pikaka, burruka bizi dira.

Oilloak diño, paitak ereakako ura zikindu egiten dabela.

Paitak, ostera oilloak arroputzak eta agintariak dirala.

Oilloak diño, paita alperrak iñoren lepotik bizi gura dabela.

Paitak, ostera, diño, oilloen arrautzak ustelak dirala.

Gurea dan ona... Zuena dan txarra... Anaiak alkarren artean burruka lotsagarri! Arerioen aurrean barragarri!...

Bela baltza zugatz puntatik burrukalariak pozik barrerka begira.

Baiña ba-zan Paitamendin zentzundun paita bat, eta asi zan pentsatzen:

"Zergatik paitak eta oilloak beti asarre bizi bear dogu?"

"Zergatik ez dogu alkartu bear?"

Baita ba-zan Oïllomendin be beste buruargiko oïllo bat, asi zana oldozten:

"Oïlloak eta paitak zatituta bíziz, zer irabazten dogu?"

"Danon indarrak bat egitea ez ete da guztien onerako?"

Eta paita zentzunduna eta oïllo buruargia asi ziran euren artean izketan, zer egingo pentsatzen... Eta azkenean Paitamendi eta Oïllomendi arteko asaben zubi zarra barriztatu egin bear zala, erabagi eben.

"Zubí" izena Paitamendin entzun zaneko, lengo burubako paitak asi ziran deadarka esaten:

"Zubi zar orí zertarako? Oïlloak gure nagusi izateko?"

Eta asmo orren barri Oïllomendin jakin zanean, an be beste burubako batzuk asi ziran aurka egiten:

"Ez dogu zubirik bear! Lagun gaiztoakin baiño obe da bakarrik bizi!».

Eta bela beltza gorrotoaren suari zugatz puntatik putz egiten.

* * *

Baiña paita zentzunduna eta oïllo buruargia asi ziran zubigiñen. Beste paita eta oïlloak ameslari bi arei esaten eutseen:

"Alperriko lana. Plater apurtuak ez dauka konponbiderik".

Baiña ameslari biak, zubí zarreko arriak erreka zuloatik atera, arri bat bestearen gaiñean ípíñi, eta eramapenaz ekín eta ekin, egun bat eta bi, aste bat eta beste bat, lanean eten barik jardunez, zubi jasotzen asi ziran.

Andik illabetera langilleak amar ziran, eta bi illabetera ogei...

Urte erdi barru, paitak euren aldetik eta oilloak besterik, danak zubigiñen jo eta ke ziarduen.

* * *

Eta orain, irakurle, ames gozo bat egiten itxíko al deustazu!!!

Zubía amaitu ebenean paitak eta oïlloak, danak bat egínik, jai alai, aundi, zoragarri bat atondu eben. alako jai ederrik ez da sekula Paitamendi eta Oïllomendin ezagutu.

Adelu-inaugurazio egun orretan, asaba zarren zubi barria goitik beraiño ikurriñez jantzita ikusten zan, eta Paitamendi eta Oïllomendíko agintariak, erri guztia atzetik etorrela, suziri, txistu eta dantzarien erdian, zubiraiño etorri ziran, eta zubi erdian alkarrerri eskuak emonez, betiko bakeak egin ebezan. Gero paita eta oïllo guztiak eskuetatik eldurik, bakearen aureskua dantzatu eben. Eta txistu, irrintzi eta dantzen artean asaba zarren abestí au entzuten zan:

"Alkartasun eguzkia, basotik urten da".

"Bere argia edonun arin zabaltzen da..."

Abestiaren soñura, eguzkiak, jai onen edertasunaz zoraturik, laiño urratuen artetik bere aurpegi alaia barreka agertu eban.

Eta Oïllomendi eta Paitamendíko bizilagunen artean egindako alkartasuna izenpetzeko zubi gaiñean Ortzadarra, bere zazpi margo ederrenakin, ditziratsu azaldu zan.

Asaba zarren azurrak illobian pozez dardarka asi ziran.

Eta zugatz puntako bela baltzak "krok-krok" alde egin eban.

Ez al da geiago agertuko!!! Ala bedi.

IÑAKI GOIKOETXEA S. J.

Ipuin au abertzaleekin orain gertatzen dana adierazteko asmatu dot.

GABON-APARIA

(2n. SARIA)

Marikutz, etxeko seme-alaben artean zaarrena, maldan gora dator basarriruntz, pardeltxo bat eskuetan daularik, Bai, ba, Donostia'n neskane urte osoan eta Gabon aparirako dato aurrez. Etxekoandreak makallau bat eskeiñi dio, etxerako opari, eta pozik dakar biotza. Etzi da Gabon eta gau orretako apararian ez da iñortxo faltako etxekorik sukalde baztarretan...

Gabon eguna eldu da. Txoko batean amama eta bere illobatxo Aitor:

— Amama, itxaur onek zertarako dira?

—Intxaur-saltza egiteko: baña, txotxo, zeuk jaten ba' gelditzen diran apurak jan eta erdiko mamiak gorde.

— Amama, pillo bat aukeratu doguz eta orain zer?

— Botella bategaz zapaldu eta birrinduko doguz.

—Eta, gero?

— Gero uretan egosi, olioia bota eta iriñakin naastu.

—Eta gero?

— Ba, gero makallau-izpi batzuek bota eta gozokia ugari.

—Gozua egongo da, amama...

— Bai, ume, gure artean Gabon-gabarik ez da intxaur-saltzarik gabe.

Aita eta Mikel basoan dabilta, iri-parea lagun, joan dan neguan botatako aritz-enborraren billa.

—Gerritik lotu, Mikel, lodi aldetik, kateak iges egin ez dezan.

—Aita, ez aldegu aundegia?

—Begira, mutil, urte osoan iraun beariko du Olentzaro-mokor onek, etxeko arazoak bide onetik joango ba'dira.

—Baña, zertarako ipintzen dogu sutan onelako mukur aundia?

— Eguzkiari laguntzeko. Berantza ibilli da orain arte eta galduko ez ba'da, lagundu egin bear.

—Nola, ordea?

—Su aundiak egiñez. Sua eta eguzkia senitartekoak dira eta suak ematen dio indarra eguzkiari. Entzun, Mikel, Eguna, Eguzkia eta Egurra guztiak datoz sustrai berdiñetik.

—Aita, zuk asko dakizu, e?

—Nere aitaren aotik ikasi nituen zuri erakusteko, zeuk ere egunen batean zure aurrari erakusteko... Guretzako beti eskolarik onena geure etxe-baserria izan da...

Lotu mukurra eta, lorketan, baserriraiño erakarri zuten. Basarri zaarrak sukaldea zeukan etxearen erdi-erdian eta, atetik aurrera, sartu ziran sukaldereiño. Aurreko mokorren errautsak an zeuden oraindik zearo erregabe eta beuren suetatik piztu zuten enbor berria. Goiza igaro zuten suari eragiten, garrrik aundienak ateratzeko moduan. Ala konbeni bait zitzaion eguzkiari bere erori-aldeetik gora jasotzeko.

Amama itxaur-saltza prestatzen ari dan bitartean, ama eta Ixabel, etxeko neskatorik zaarrena, Gabon-gabeko aparriekin diarte buru-belarri. Aza-olio legun-legunak asierako, makallaua saltzan ondorengo, intxaur-saltza borobil-tzeko eta gaztaña erreka amaitzeko.

— Iñixio, amak mutikoari, danboliña sutara inguratu.

—Lakari bat naikoa izango degu, amatxo?

—Imillaun bat naikoa da, aurretik jaki asko degu-ta.

— Ama, diotza Ixabel'ek, egia al da Olentzaro tximiñitik beera jeisten dala gaurko gaeuz?

—Suari arretaz begiratzen ez ba'diogu, bai. Itaiia eskuan duela egertuko litzake, asarre bizian.

—Au bildurra, amatxo...

—Ez izan bildurrik, Ixabel, gaur ez diñagu orrelako arriskurik etxe onetan; mokor galantza ekarri diñe aitak eta

Mikel'ek basotik. Urte giztirako suak seguru dizkiñagu aurten. Aza-ostoak kontuz garbitu, tolesteetan bada edo mozorrorik gorde ez dediñ.

Aparia gertu dago. Amamak Errosario santua amaitu du. Aitak mai-burua artzen du; bere eskubitan Marikutz, zaarrena; ondoren Mikel, Ixabel eta besteak. Aitor, txikiena, ama eta amamaren artean.

—Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Ori esanaz batera, aitak ogiari gurutze bat egiten dio ais-toakin eta muturrari zatitxo bat ebagi dio. Musu eman eta mai-gañeko zamaupen gorde du.

—Ogitxo au ez da urte osoan lizunduko eta amorru-gaitzaren kontrakoa da; alaxe dira, baita ere, amamk gaur baratzan erein dituen baratzuri-atalak, baldin San Juan egunean jasotzen ba'dira.

—Aita, —dio Mikele'ek— biar goizean kortako abereak Olentzaro mokorraren gaiñetik pasa-aziko dituguz?

—Bai. Orrela gaitz guztiak aldentzen dira gure ikullutik; baita etxe osotik ere.

Maieko jakien lurruñak urdaillak erne arazi ditu eta ekin diote guztiok batera, mauka, mauka... Itzik eta berbarik egiteko astirik ez du iñortxok artzen. ARTan ari dirala, atariko atea jo dute.

—Iriki, mutil. Aitak Mikel'eri.

Sukaldeko argira, gazte bat agertu da kantari:

Emen eldu gerade
berri on batekin
gure embajadero
Olentzerorekin.
Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzivadekin
ikatz egitera.
Aditu duenian
Jesus jaio dala
laisterka etorri da
berri ematera...

kanta-sorta osoa amaitu dutenean, etxeko jaunaren kiñu batera, sartu dira barrura, mokautxo bat artu eta eztarria sagardoakin leguntzera. Eman dizkiete lukaika, odoloste eta txerrikiak. Ondoren badoaz mendian beera, farolak eskuetan, beste basarri batera.

Marikutz'ek aitari:

— Olentzaro eguzkiaren languntzaille ba'da, nolatan egin da Jesus'en albistari?

—Gure aitonak esaten zigun nola, Aralar'ko zelaigune batean jentillek dantzan ari zirala, laiño ikusgarria agertu zan sorkaldetik.

— Zer da sorkaldea? Dio Ixabel'ek

—Eguzkia egunsenkia egunsentian agertzen dan aldea. Eta, eguzkiak aria argi ematen zuen laiñoak. Ikaratu ziran jentillek eta txabolla batean zeukaten jentil zaar jakintsua atera eta laiñoaren aurrean ipiñi omen zuten; baiña, betazalak eroriak zituelako, ez omen zuan ezer ikusten. Iriki zizkiotenean, garraxika asi omen zan:

—Kixmie jaio da eta gure askazia galdu da betirako; bota nazazue mendian beera.

Bota zuten amiltegian eta eurok sartalderuntz igesi joan ziran eta arripilla aundi batean sartu omen ziran eta an omen dute euren azken illobia. Jentil-arri esaten diogu arripilla arreri.

— Trikuarria ere esaten zaio. Mikel'ek aitari.

—Baiña, ez omen ziran guztiak lurperatu. Bat gelditu zan bizirik. Ibarrera jetxi eta Jesus'en berri ematen asi omen zan erririk-erri. Uraxe omen da Olentzaro, euskaldunen lenengo mixiolaria. Erririk-erri eta aterik-ate ez da oraindik bere lanean gelditu.

— Eta, zergaitik —dio Mikele'ek— esaten dute Olentzaro tripazai eta mozkor aundi bat dala?

—Ori beste arazo bat da, Mikel. Euskera geiegi ez zekien bertsolari baten errua da ori. Olentzaro -mokorra eta Olentzaro -mokorra eta Olentzaro -moskorra, (biak dira berdin) Olentzaro mozkor -ardozele batekin trukatu zuten. Eta, ortik edo sortu dira makiñatxo bat era orretako kantak. Asieran ez zan Olentzaro orrelakoa; gerorakoak dira oiek.

Gaztañak mairatu diranean asi da Marikutz kantari:

Ator, ator, mutil etxera
gaztaña zimelak jatera,
Gabon gaba ospatuzeko
aitaren ta amaren ondoan...

Orduan aurrera doaz ustekabeen eta Mezatarako ordua eldu da. Aita, Martikutz, Mikel eta Ixabel maitik jeiki eta amantarrakin batera abarkak jantzi dituzte. Baita kapusaiak ere soifnekoen gaiñetik. Ganbaratik lasto-zuziak jetzi, eta bat piztu ondoren, irten dute elizarako bidera. Sakonetik goruntz kanpai-otsak dilin dalan:

Ogeita laugarrena / negu abenduan
deso genduena / iritxi genduan.
Gabeko amabiak / jo duten orduan
gure Salbadoria / jaio da munduan.

ARRINDA'tar ANES

ZORRAK ORDAINTZEN

(3n. SARIA)

Erriko kale nagusian egundoko ixkanbilla...

Zer ote de or?

Ertzaiñen erdian, iru mutil gazte, eskuak lotuta, daramazkite. Berebil itxi batean sartu eta auzitegira bidea artu dute.

— Zerbait ona egiña izango dira! —dio ingurutik igaro dan emakume batek.

— Zerbait ona? Bai, zaude ortan! Aurpegia mozorrotu eta labana aundiak eskuetan, Aurrezki-Kutxa'n sartu omen dira, lapurreta egiteko asmoan, baiña, zorionez, gaizki atera zaie, eta jakina!, orain espetxera juan biar. Onela erantzun zion belarrira aldamenean agertu zan Marijakintsuk.

— Nortzuk ote dira?

— Jakin dedanez, bat, beñipein, zera omen da, Andoni, aako Iñaxi alargunaren semea. Ama gaxoa! Oraindik txaarrenak ikusteko izango da seme orrekin. Beti ezikaitzaz gañera, lagun biurriekin bat eginda zebillen aspaldi onetan, eta ezin ondo bukatu. Oraingo ontan, iñork ez dio kenduko, gaiñetik, aldi bateko itzala. —Orrela osatu zuan bere berri— ematea atso falakak.

Eta, zer nai dezu? Asmatu egin zuan. Sei urteko espetxea ezarri baitzien epaillak, gazte aietako bakoitzari.

A zer nolako gurutzeta jarri zion amari bizkarrean seme doaka-beak! Arek bezela, beste bi gazteak ere.

Leengoaz gañera, orain au. Bai. Andoni ura jaio zan egunetik, biotzean ukitua gelditu omen zan Iñaxi, eta orregatik, beti nekepean eta beti makal ibiltzen zan gaxoa.

* * *

Ala ere Iñaxi an juaten zan asteoro, semea ikustera espetxera, nola edo ala, aurreratu aal zituan diru pixarrak eta janariz orniturako perdeltxoak ari eramanaz. Eta orrela irauñ zuan, sei illabete inguruan. Baiña, begira, azken ikustaldian, ama eta Andoni, burnisare bat bitarte, alkarrekin izketan zeudela, or nun eroritzen dan emekumea, zentsu gabe, lurrera.

Iñoiz amagatik ardura aundirik agertu ez bazuan ere Andoni'k, oraingo ontan, an asi zan ertzaiñeri deadarka, laguntza eske. Auek agertu ziranian, jaso zuten emakumea, eta sendagilleari deitu ondoren, osategira eraman. Emen, ondo aztertuta gero, ondoez ura biotz aularen ondorio bat izan zala erabaki zuten. Orregatik bearrekua zuela Iñaxi'k, ordurarte baiño obeto, bere burua zaintzea, oraindik urte gutxi batzu bizi nai bazuan, mundu onetan.

Espetxeko apaizak eman zion albiste au Andon'iri.

Ondorengo egunak eman zioten naikoa buruauzte gure mutillari. Izan ere ama iltzen bazitzaion, agur aren diru eta janari-pardel goxoak! Zai-zai egondu zan, eta bai urduri ere, amak urrengo igandean zer egingo ote zuen burutapenetan.

Eta ama, ama izaki eta, azaldu egin zitzaion urrengo igandean ere, baiña oso itxura txarrekoa, eta erabat argala. Maillu aundi batek buruan jota lez gelditu zan Andoni. Apaizak esanari arreta geiegi jarri ez bazion ere, orain bere begiak ziran egi samiñaren lekuko.

Apaltasunak eraginda ez, baiña bere kezkek bultzata, aste artan bertan, agertu zan Andoni apaizaren gelan, onen aolku billa.

Apaizak zorrotz itz egin zion, eta esan, ordurarte amaren ardurarik izan ez bazuan, garaia zala, noizpait ere, gizatasun eta sememaitasun pixka bat agertzeko.

— Zer egin bear dut bada? —galdetu zion mutillak.

— Zera, lendabizi, amak asteoro ekartzen dizkitzun diru eta oparieri uko egin. Oartu zaitez, zuk asteoro zurrupatzen duzuna, amak, berak jateko bear duanetik, bere aotik, kenduta ekartzen dizula. Ori dataala, aren ondoeza eta auleria.

Muturrillun entzun zuan Andoni'k apaizak esana.

Orain, ezarri zion apaizak, nai baldin badezu, eskuarterako diru pixka bat izatea, egin zazu lan espetxean bertan, eta iritxi zenezake zerbait. Orrela egiñaz, zure espetxeko egonaldia moztu egingo zenduke, lanean igarotzen dezun denporaren arabera.

— Ikusiko det— esanda, atera zan mutilla apaizaren gelatik.

Baiña, urrengo egunian bertan, itzuli zan berriz apaizarengana, bere arabakia agertzera eta onela mintzo zitzaion:

— Esaiozu espetxeko agintariari lan egin nai dedala, baiña, ni ezer langintzarik ikasi gabea naizenez, eman dagidala eginkizun erraz bat, arik eta beste zerbait ohea egiten ikasi arte. Amari berriz, auxe esatea nai nuke, zera, emendik aurrera ez ekartzeko dirurik, ez eta janaririk ere. Ni neu antolatuko naizela, emen lana egin eta zerbait irabaziaz.

Ez dakigu Andoni'ren amaren otoitzak edo beste zerbait mirari izandu zan bitarteko, baiña, ordutik aurrera, gure mutillak berebiziko aldakuntza egin zuan bere bizikeran, eta, egia esan, amaren osasuna ere obetu egin zan pixka bat.

* * *

Andoni'ri eman zioten langintza arropa-garbiketa izan zan. Ortan jardun zuan uteerdi inguruan. Baiña bien bitartean, mekanika ikasi naia agertu zuan espetxeko zuzendaritzan, eta eman egin zioten ortarako egokitasuna. Asieran, liburuak ere ikasi bearrak lanak eman zizkion, irakurtzen gutxi oitutako mutillari, baiñan, pixkaka pixkaka, espetxeko irakasle ziran Dom Bosko'tar lekaideeri eskerrak, zailtasunak menderatu eta beste edozein añako ikasle eta langille trebe izatera eldu zan. Ortaz gañera, gizaseme alai eta irripartsu biurtu, Izan ere, bere lanaren truke, espetxeko egonaldia laburtzen ari zan, sei urtetik irura jexteraño. Eta orrek poza ematen.

Eta orra, espetxeko aldia bukatu eta nun aurkitzen dan mutilla erabat aske, bere etxean, bere amaren ondoan. Ez dago esan bearrik Ama Iñaxi'k artu zuen poza, seme ura bere besoetan, azpaldiko ordez, besarkatu zuanean.

IPUIN-SARIKETA

Etxera eldu ta bereala, ara zer egin zuan Andoni'k, ots: Eskutitz bat idatzi Aurrezki Kutxa'ko zuzendari eta langilleeri, iru urte leenago berak egun zien iraiñagatik biotzez barkapena eskatuaz. Esaten zien gaiñera, berbera jua bear zuala ori egitera, baiña loutsa ematen ziola eta ez gaizki artzeko.

Urrengo eginkizuna alntoki egoki baten billa astea zuen, baiña, lendabizi, amaren ondoan egin batzuk goxoro igaro ta gero. Espetxeke lanaren truke, jaso zituan txanponekin, bazeukan ladi-txo motx bat ba zan ere, ama ta biak bizitzeko lain, eta ez zeukan presa geiegirik lan billa asteko.

Baiña, begira, egun aietako baten, or nun etxeke atea jotzen duan berak gutxien uste zuen batek, ots, Aurrezki Kutxa'ko zuzendariak. Andoni'k ura aurrean ikusi zuanian, bildurto ere egin zan. Zer ote zekarren, azkenenego aldiz, bere labanaren aurrean izaturik ikusi zuan gizon arek?... Ala ere, "egunon Jainkoak" esanaz, eta irripartsu ikustean, ez zion iritzi bildurgarria.

— Ara, esan zion onek, zertara natorren. Jakiñean nago espe-txean oso jator eta gizonki izandu zerala, eta gaiñera mekaniko trebe eginda atera zerala. Ori alde batetik eta zugandik artu degun eskutitzaren jatortasuna ikusi ondoren, zera bururatu zait, naiko zendukela, bearbada, orain lantokiren bat eskuratzea, zuretzat eta zure amarentzat bizibidea ateratzeko... Orixe eskeintzera etorri naiz, eta ondo baderizkiozu, nere anaiak daukan lantegi batean daukazu toki ori. Zeuk nai dezunean asi zindezke eta itxurazko lansari bat izango dezu. Tori nere anai orren zuzenbidea eta zeuk nai dezunean agertu beragana. Pozik artuko zaitu. Eskua alkarri emanaz, betiko lagun bezela alden du ziran alkarrengandik.

Amaren ondoan egun gutxi batzu igaro ondoren, Andoni'k ekin zion lanari, eskeini zioten lantegian.

Nagusia pozik bere langille berriakin, eta Andoni ta ama ere ez gutxiago. Mutillak irabazten zuanaz itxuran bizi ziran amase-meak.

* * *

Baiña ludi onetan, bein ere atsegin osorik. Amaren osasuna beeraka zijoan, ondoezak era sarri xamar zetorkzian eta Andoni kezkatua zegoen etorkizunari buruz. Iru urtean orrela iraun ondoren, egun baten, izan oi zituan ondoez aietako baten, mundu au betiko utzi eta zerura jua zitaion ama.

Egun latzak benetan Andoni'k igaro zituanak, ama il da gero.

Ala ere, azkenengo sei urte aietan, Andoni'k, bizibide bat ikasteaz gañera, beste gauza garrantzitsu bat lortu zuan, ots, kristau jator biurtzea, eta orri ezkerak, gainditu zuan amaren eriotzak eman zion atsekabea eta utzi zion bakardadea.

* * *

Zer egin zuala uste dezue gero?

Begira! Entzuna zuen misio lurretan pozik artzen zituztela, irakasle bezela, zerbait langintzan trebe ziran notin edo pertsonak. Bereala agertu zan espetxean bere irakasle izan ziran praille Sales'tarregana, eta esan: Zuek neri erakutsitako mekanikari eskerrak, nik ondo bizitzeko lain diru irabazten det.

Orain ama il zaidan ezker, dirua aurreratzen ere ari naiz eta auxe egitea erabaki det, ots, zuek neri bezela, nik ere beste norbaitueri mekanika erakustea, orrela bizibide bat izan dezaten ez daukatenak. Nik pozik lan egingo nuke zuek dituzuten misio-lurretan. Zer iruditzen? Egia esan, nik oraindik, neu praille biur-tzeko deirik ez det somatzen nere barruan, baiña badira, ori gabe

ere misiolari lana egiten dutenak. Ni ere oietako bat izango nitzake pozik.

Nola ukatu bere eskabidea euren ikasle jator izandako muti-llari?

* * *

Laster asi ziran prailleak eta Andoni, misio lurretara juateko gertumenak egiten. Lenengoa, ingeles pixka bat ikastea izan zan. Ortan saiatu zan Andoni, alditxo batean, bere lanorduetatik at gelditzen zitaion denporan. Irabazten zuanetik bizi eta gelditzen zitaion dirua, prailleen eskuetan jartzen zuan, lur aietan bearko zituan lantresna batzu erosteko.

Erriko bizilagunak, Andoni'ren asmoak jakin zituztenean, opari asko egin zikioten, naiz diru ta naiz tresnatan. Eta begira, asken egunetan, nor jua zitzan Andoni'ri, diru-agiri mardul batekin, zera Aurrezki Kutxako zuzendari jauna. Arek ere misiolari izan zai, bere erara! Arek ere lagundu egin nai.

Prestamen guztiak egin ondoren, Andoni'ri alako itunalditxo bat sortu zitzaion, biotzondoan, bere erri kutun eta ainbeste lagun utzi bearraz. Baiña, ze demontre! Ez al zijoan ba lan aundi bat egitera? Ez al ditek beste ainbesteak ori bera egiten? Zer dala-ta okildu orain? Burutapen auen bidez, laster menderatu zuan bere illunaldia.

Izentatutako eguna iritxi zanean, atera zan bere erritik, Don Bosko'tar praille batek lagunduta, egazkiña artu eta an abiatu zan Andoni, Aprika'ko lurralde ezaguna dan Etiopia'ra. Ibillaiddi atsegin baten ondoren, iritxi zan, Euzkadi'tik at, lenengo ikutzen zuan lurraldera. Bai eperdiña orratik! Baiña ura ere, gurea bezela, gure Jainko berberak egiña!

Leendik an zeuden misiolariak egin zioten ongietorri biotzko-rrak aaztu erazi zizkion illunaldi guztiak eta bereala jarri zan lane-rako prest.

Orretarako, estalpetxo bat antolatu zuan, eta an, bakoitza bere asto eta zuntoietan itxasita jarri eraman zituan lantresna batzuk, zerbait egiten asteko. Zer? Berak ere ez zekian oraindik, baiña laster asmatuko zuan. Egun batez, an inguruko uri batera jua zan, eta burnizar pillo batzuk astartu ondoren, iruditu zitzaizkionak jaso eta berakin eraman. Lenengo tresnatu zuana josteko langaillu bat izan zan. Ango emakumeen arridura, apaillu ura, traka, traka, josteta jatorra egiten ikusi zutenian. Ondoren moto-txirrinka bat osatu zuan, puska zarrekin. Berebiziko ibilgallua, bide estu eta txar aietarako; ordukoz, bi txirrinkaduna, laster etorriko zan laukua ere.

Ingurua urbiltzen ziran gazte eta zaarrak, danak ao zabalik gelditzen ziran, Euzkadi'tik etorritako gazte arek egiten zituan sorginkeriegaz.

Izkera ez jakitea izan zan, aseran, Andoni'k jasan zuen eragos-penik petralena, angu jendeari gauzak erakusteko, baiña prailleen laguntzarekin, laster biurtu zan, bera ere, irakasle trebe.

Arritzekoa izan zan, bi urteren buruan, Andoni'k lur aietako gazteen alde egin zuan lana. Aren laguntza zala-ta, misiolari apaizak ere, euren eginkizun berezietan jarduteko, asti geiago izaten zuten, Andoni, naikua baitzan, bera bakarrik, eskulanen arazoa burutzeko.

Ipuia bukatu da, baiña Andoni'k antxe jarraitzen du, gaur ere, berak dionez, zorrak ordaintzen. Ez al zioten ba berari ere besteek eman berak zekiana? Bidezkoa zan ba, doan artua doan ematea. Orra egin nai duana!

BERGARETXE'tar JON JOSEBA

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*



Bilbao Bizkaia Kutxa

1 20 PEZETA